


**BIZITEGI ERAIKINA**  
D MAILA

**AITA LARROKA 12**



**Egilea eta data: Pablo Zabalo; 1931**

**Deskribapena**

Kantoiko eraikina, jatorriz behe oina, bastardea (proiektuan ez zen halakorik aurreikusten) eta sei goi oin dituen (azken biak atzeraemanak). Uztaileko proiektuan 5 goi oin besterik ez zegoen, eta urrikoan beste bat gaineratu zen (14 zenbakia ere hala dagokio). Hormigoizko fatxada, kantoian eta alboetako ertzetan begiratokiak dituena. Apaingarriei, sekzioari, egileari eta abar dagokionez Aita Larroka 14ren berdina da.

**Babes erregimena**

- 1.- Erregimen orokorra.  
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.  
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
- 2.- Berariazko erregimena.
  - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: ez.
  - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: elementu moldekatuak.
  - C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.